Puede concluirse que el gasto que se aprobó en su día se ha cumplido fielmente, habiéndose realizado un gasto total de 3.507.105 €, un 1,46 % más de lo presupuestado. Tal y como hemos indicado en esta cifra se incluyen los 125.000 € destinados a la consignación por la sanción de la CNMC, sin la cual no se habría llegado al total de gasto presupuestado.

En cuanto a los ingresos, se han obtenido un total de 3.353.880 €, inferiores a los previstos en un 2,97 %, pese a lo cual presentamos un resultado negativo de 153.225 €, que pasa a restar el Fondo Social de nuestro Colegio.

Los datos que se describen y acompañan están siendo auditados por empresa independiente en el momento que se redacta esta memoria, cuyo informe estará a disposición de todos los colegiados a través de la web colegial antes de la celebración de la **Junta General de rendición de Cuentas** el próximo **día 21 de Marzo de 2019**, jueves, a las **13,00 horas**, en el Salón de Actos de nuestro Colegio.

En Bilbao a 5 de marzo de 2019

# GASTU ETA SARREREN TXOSTEN EKONOMIKOA. BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGO OHORETSUA

## 2018ko ekitaldia

---

Idazki honekin batera doan taulan, 2018ko ekitaldiaren betearazpen ekonomikoa osatzen duten kopuruen ondoan, aurrekontuan iragarritakoa jaso da, kostu edo gastu guneak kontuan hartuta; beraz, benetako gastuak aurreikusitako gastuekin errez konparatu ahal dira; aurrekontu hori, dakizuenez, 2017ko abenduaren 20an egindako Aurrekontuen Batzar Nagusiak onetsi zuen.

Elkargoak duen kontabilitate analitikoa erabili da txosten hau prestatzeko. Horrela elkargokideek argi eta garbi azter dezakete dokumentu hau; hori dela eta, batetik, kostu edo gastu guneak eta kontzeptuak zehatz azaltzen dira, eta, bestetik, diru sarrerak. Horrenbestez, elkargokideok erraz eta arin dakuskigu datu guztiak, baita errealitatean duten eragina; halaber, desbideratzeak ikus daitezke, aurreikusitakori dagokionez.

Gogoratu behar da aipatutako ekitaldian **kideen kuotek berdin jarraitu dutela**; are gehiago, hamar ekitaldi hauetan kideen kuotak ez dira igo edo behera egin dute. Elkargoko ekonomia arloan gastuak doitzeko eta ez handitzeko politika erabili da, betiere kideei eskainitako zerbitzuak behar bezala emanda.

Jarduera-zentroen arabera zehaztutako gastuen eta sarreraren partidak zehatz xehatzeaz gain, txosten honetan iruzkindu beharreko beste alderdi batzuk aipatzen dira. Dena den, Elkargoko diruzainak **Batzar Nagusian** informazio zabala emango du datorren **martxoaren 21ean, osteguna, 13.00ean**, gure egoitzaren ekitaldi-aretoan (Uribitarteko Aldapak, 3, Bilbo).

**Atal edo kostu-zentro hauek nabarmendu eta zehatzago azaldu nahi ditugu**, garrantzitsuak direlako edo zenbateko aipagarria dutelako:

### **Zerbitzu orokorrak:**

Kontzeptu honetan gure elkargoaren egiturari eta ohiko funtzionamenduari dagozkion gastu eta sarrera guztiak bildu dira, hau da, jarduera zehatz bati ez dagozkionak. Hori dela eta, kopururik handiena duen partida da.

## **Gastuak (Zerbitzu orokorrak):**

Ondoren, zerbitzu orokorren barruan aipamen berezia merezi duten gastuen azalpen laburra gehitu dugu, gure ustez oso garrantzitsuak dira eta:

- 603 partida, ***Liburutegirena***. Aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da gastua. Atal hau beti aipatu beharrean gaude, gure ustez garrantzi handia baitu, ez zenbatekoari dagokionez soilik, 93.115 €, baizik eta zerbitzu hau abokatuoi eskaintzen zaigun nagusietakoa delako eta guztiok sarritan erabiltzen dugulako. Kontzeptu honetara, monografiak erostea, aldizkako argitalpenetan, aldizkari ofizialetan, datu-base juridikoetan izena ematea, koadernaketak, etab. biltzen dira, baita legegintzako eta jurisprudentziako datu-baseetan on line izena ematea ere, Elkargoko liburutegian, Buenos Aires eta Barroetako justizia jauregietan eta barruti judizialtako egoitza judizialen bulegotan (Barakaldo, Getxo, Gernika eta Durango) ezarritako banda zabalaren bidez.
- 607 partida, ***Beste enpresa batzuek egindako lanak*** izenekoa, 62.856 € euro dituen.

Partida honetan “Eduardo Escribano” erakusketa gelaren inguruko gastuak jasotzen dira. Gastuen artean hauek daude: egileak hautatzea, katalogoak editatu eta inprimatzea, artelanak instalatu eta kentzea, etab. Lehen gastu horiek BBK Fundazioak zuzenean ordaintzen zituen baina orain beste modu batera egiten da: BBK Fundazioak urtero diru kopuru bat ematen digu eta Elkargoak hornitzaileak kontratatu eta ordaintzen ditu. Azken bi urteetan modu horretara egin da.

Halaber, partida honetan kontu hauek jasotzen dira: komunikazio bulegoaren lana, sinadura elektronikoa daramaten elkargoko txartelak egitea edota elkargoaren egoitzetan dauden togak garbitzea eta konpontzea; azken horri dagokionez, ekitaldian 25.321 € gastatu dira.

- 622 partida, ***Konponketak eta kontserbazioa*** izenekoa, 139.554 € dituen. Partida honetan, ohi bezala, hauek sartzen dira: Elkargoaren egoitza guztietako instalazioak eta ekipoak mantentzetik nahitaez eratorritako gastu guztiak jaso dira: ordenagailuak, fotokopiagailuak, lokalen garbiketa, zainketa- eta detekzio-sistemak, airea girotzekoak, togak egin eta konpontzea, lokalak margotu eta zaharberitzea, etab., baita elkargo profesionala garen neurrian gure jarduerari dagozkion bestelako gastu orokor arruntak. Ekitaldi honetan gastu aipagarriena hau izan da: elkargoaren ekitaldi aretoko besaulkien tapizeria konpondu edo aldatzea; aurreko urtean ekin zitzaion lan horri eta jadanik bukatu dugu.

Halaber, liburutegiaren teiltatuaren konponketa egin eta suaren aurkako ate aldatu da.

- 623 kontua (198.608 €) **Profesional independenteek emandako zerbitzuei** dagokie. Gure aurrekontuetan kopuru garrantzitsua izaten da beti. Funtsean, Elkargoarentzat lanak egiten dituzten profesionalei, batez ere abokatuei, egiten zaien ordainketari dagokio. Profesional horiek jarduera espezializatuak egiten dituzte Elkargoarentzat, besteak beste, honako hauen inguruko gastuak sartzen dira minuten aurretiazko txostenak, elkargokideei eta jendeari oro har eskaintzen zaien ordainsarien zerbitzua, eta erantzukizun zibilari buruzko txostenak, kasua balitz. Dakizuenez, horietako gehienak gure Elkargoko kideak dira, hau da, jardunean dauden abokatuak, eta horien aukeraketa prozedura publikoen bidez egin da. Elkargoko urteko kontu-ikuskapena ere bertan sartzen da. Halaber, partida horretan elkargoaren kudeaketarako behar diren egokitzapen eta hobekuntza informatikoak eta elkargokideekiko komunikazio plataformak sartu dira; kontu horiek azken urteetan nahitaezkoak bihurtu dira: etengabe egin behar dira eta lan handia ematen dute.

- 6272 partida, **Publizitatea eta Propaganda** (64.205 €). Bertan Elkargoak herritarrek abokatu-zerbitzuak erabiltzearen alde egindako publizitate-gastuak jaso dira. Aurten kanpaina bat egin da, azaroan, Metroko, Euskotreneko eta Bizkaibuseko geltokietan kartela deigarriak jarrita; horrela, Bizkaia osora zabaldu dugu gure mezua. Horrez gain, El Correo egunkariak iragarkiak jartzeko egin zigun eskaintza aprobetxatu dugu, izan ere, ekonomikoki oso interesgarria zen; ondorioz, urtean zehar eguneroko horretan agertu gara. Azkenik, Elkargoaren izena aldatzearen ondorioz, logoa era aldatu dugu eta, ondorioz, horri buruzko iragarkiak argitaratu ditugu eta horrek aurrekontuak esandakoa baino pixka bat gehiago gastatzea ekarri du.

Publizitate ekimen horien bidez, abokatutzaren irudia indartu nahi da eta, baita ere, abokatuak kontratatzeak dituen abantailak herritarren artean zabaltzea, batez ere, halako zerbitzuak inoiz erabili ez dituztenen artean; halaber, abokatuon prebentziozko lana bultzatu dugu.

- 6291 partida, **Komunikazioak** (28.775 €). Atal honetan honako gastuak sartzen dira: postaren bidez gutunak igortzeak eragindako gastuak, Elkargoko bulegoetako telefonoa eta Internet (Wifi) zerbitzuak eragindakoak, eta, azkenik, Elkargoko bulegoen arteko lotura telematiko eta telefonikoak sortutakoak. Komunikazio horiek gero eta garrantzitsuagoak dira, izan ere, elkargokideentzako zerbitzuak estranetaren bidez ematea gero eta ohikoagoa da.

- 6293 kontua, **Elkartasun Funtza** izenekoa (6.000 €). Hamabigarren aldiz banatu da diru hori, Elkargoak onartutako erregelamendu berria kontuan hartuta.

Aurreikusitakoa jasotzen da hemen baina, egia esan, gehiago gastatu da (batez ere, elkargokideen alargun eta seme-alabei laguntzeko; guztira, 50.557 €), izan ere, aurreko ekitaldietatik dugun superabita erabili dugu. Diru horrekin Elkargoak gure kide behartsuenei eta horien familiakoei lagunduko die, hartutako konpromisoen arabera.

Aipatutako erregelamendua Elkargoaren web orrian ikusgai duzue ([www.icasv-bilbao.com](http://www.icasv-bilbao.com)). Eskabideak urtero egin ahal dira, urria baino lehenago; dena dela, Elkargoak urtean zehar aurkeztutakoak ere aztertu eta, kasua denean, onartuko ditu.

- **Pertsonalari** buruzko zenbatekoa aipatu nahi dugu (hau da, Alokairuak eta soldatak, Gizarte Segurantzaren eta Beste gizarte-gastu batzuk). Nahiz eta Zerbitzu orokorrean aritu, pertsonalari buruzko gastuak Elkargoko beste zerbitzuekin batera jorratu behar ditugula uste dugu. Guztira, 1.242.891 €-ko gastua sortu da, aurreikusitakoa gutxi gorabehera, hau da, gastu guztien %35,44. Diru asko da, aurreko urteetako antzekoa, baina partidaren zenbatekoa zentzuzkoa dela uste dugu, izan ere, Elkargoak bere zerbitzu gehienak partida horretara bildutako langileen bidez eskaintzen ditu.
- **Finantza gastuak** izeneko partida (66 partida) lehen aldiz sartu dugu Elkargoaren gastuen artean (25.505 €). Zenbateko hori Elkargoak abenduaren 31n banketxe batean zuen inbertsio bati dagokio, izan ere, saldo negatiboa zuen, jarritako diruarekin konparatuz. Inbertsio Funtz bermatuetan zegoen diru hori baina ekonomiaren gorabeherak eta Ibex 35 delakoaren jaitsiera zirela eta, galerak zeuden. Dena den, galera horiek puntualak izan ziren eta dagoeneko errekupezazioa etorri da eta saldoa positiboa da.

Aipatutako zenbateko negatibo horrek eragina izan du ekitaldiaren urte bukaerako kontuetan.

- **Ezohiko gastuak:** Partida honetan CNMC delako erakundeak ezarritako 125.000 €-ko isuna sartuta dago. Informatu genuen moduan (2018ko martxoaren 12ko data zuen zirkularren bidez), Lehiaren Euskal Agintaritzak zehatzeko prozedura bat ireki zigun, doako laguntza juridikoaren inguruko zerbitzuen antolaketa zela eta (ofiziozko txanda eta atxilotuari laguntza). Isunaren arrazoiak: aipatutako erakundeak espediente ireki zuen bederatzi abokatuen elkargoren aurka, BANKIA banketxearekin lotutako kontuen tasazio txosten batzuk zirela eta.

Errekurtso judiziala gorabehera (Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzietako Salak emango duen ebazpena gure aldekoa izatea espero dugu), kontabilitatearen arau zehurrak aplikatuz, zenbateko hori ekitaldian gastu modura jarri dugu; hala ere, espero dezagun etorkizunean sarrera modura sartu ahal izatea.

Kontua da dirutza horren esleipen edo kontsignazioak gure kontabilitateak aspalditik izan duen norabidea aldatzea ekarri duela; hain zuzen, bigarren aldiz balantzea negatiboa izan da. Gogoratuko duzue, Lehiaren Euskal Agintaritzak zehatzeko prozedura bat ireki zigun aurreko urtean, doako laguntza juridikoaren inguruko zerbitzuen antolaketa zela eta (ofiziozko txanda eta atxilotuari laguntza); Auzitegi Gorenean jarri genuen errekurtso judiziala oraindik erabaki gabe dago.



- **Amortizazioak:** Pertsonalaren atalarekin egin dugun moduan, amortizazioei buruzko atal honetan ere Elkargoko beste zerbitzuekin batera jorratu behar ditugula uste dugu. Elkargoak ezarrita duen kostuen analitikaren ondoretarako, ezarpen horiek modu proportzionalan egiten dira Elkargoaren instalazioei ematen zaien erabilera kontuan hartuta. Gastua banatzen da zerbitzu orokorren, praktika juridikoko eskolaren eta ofizioko txandaren artean. Betiere zergen arauketa eta kontabilitate arauketa kontuan hartuta. Xede horretarako, kontzeptu horiengatik kostu-zentro guztietan ezarritako kopurua 176.773 € izan da guztira.

### **Diru sarrerak (Zerbitzu orokorrak):**

- **Elkargoko kuotak** Elkargoko diru-sarreraren lehen iturria dira bere eginkizunak bete ahal izateko. Txosten honen hasieran adierazi dugun moduan, jadanik badira hamar urte jarraian kuotak igo gabe (mantendu edo bajatu dira).

Aldizkako kuotak guztira 1.546.992 € izan dira (aurrekontuetan, 1.559.050 €); kopuru horri Elkargoan sartzeagatik lortutako diru-sarrerak gehitzen badizkiogu -55.400 € (aurrekontuetan, 59.300 €)-, sarrera guztien % 47,78 dugu, hau da, 1.602.392 €.

Ikusten denez, Elkargoko kuoten eragina gero eta txikiagoa da (2011. urtean sarreraren % 60,86 zen), izan ere, kuotak beheratu dira eta urtero sartzen diren kide berriak gero eta gutxiago dira; dena den, bestelako diru sarrerak izan ditugu: Praktika Juridikorako Eskolak jarduera gehiago antolatu ditu eta horri esker, gehien bat, sarrerak handitzea lortu da.

- **Askotariko sarrerak** izeneko atala ere aipagarria da (39.728 €); gure aurreikuspenetan iragarritakoa gutxi gorabehera. Partida honetan elkargokideek ordaindutako hainbat gauza sartzen dira: fotokopiak, ziurtagiriak, artikulatu txikiak edo sinadura elektronikoa duten karnetak eta irakurgailuak; azken bi horiek gaur egun asko erabiltzen dira, izan ere, auzitegiekiko komunikazioa modu telematikoan egiten hasi gara eta aipatutako tresna horiek nahitaezkoak dira, baina kideek erosita izan dituztenez, iazko kopuruarekin alderatuta aurtengoa apalagoa izan da. Hala ere, badira elkargokide berriak eta, gainera, berriztapenak egiten ditugu.
- 706 partidan –**Jarduerak antolatzea**– BBK Fundazioak egindako ekarpena agertzen da, 26.000 €; kopuru horrekin ekitaldi aretoaren inguruko gastuak ordaindu behar ditugu, aurretik azaldu bezala (Elkargoko gastuen ataleko *Beste enpresa batzuek egindako lanak* izeneko partidan, hain zuten).
- Azkenik, ohiko zenbatekoa gainditu delako, **Ezohiko sarrerak** aipatu behar ditugu. Bertan zenbait kontzeptu sartu dira: kobratu gabe zeuden kuotak (kobratu direnean), kutxa-erregularizazioak, kobratutako prozesu-kostuak (Elkargoaren alde izan direnean) edota aseguru batzuen (erantzukizun zibilaren inguruko aseguru eta erabateko ezintasun iraunkorra) kontabilitate-erregularizazioak, aurretik balantzean alde positiboan kokatuta zeudenak.



## **Praktika Juridikorako Eskola:**

Praktika Juridikoko Eskolaren jarduerak gora egin duenez –2015eko ekitaldian islatu zen bezala–, gastuak ere nabarmen handitu dira, baina batez ere diru-sarrerak. Horren arrazoi nagusia Deustuko Unibertsitatearekin batera abokatutzan aritzeko unibertsitate masterra da; horri esker kuotak bajatzea edo mantentzea posible izan da. Horrez gain, gure Eskolak antolatuta urte osoan hainbat ikastaro eta tailer egin dira, eta jende askok parte hartu du; horrek ere zenbatekoak handitzen lagundu du.

Jarraian, datu azpimarragarrienak jaso ditugu:

### **GASTUAK:**

- Lehenengo eta behin, garrantziari erreparatuz, 623 kontukoak aipatu behar dira, ***Profesional Independenteen Zerbitzua***, 393.630 € guztira. Kopuru hori erabili da ia-ia osorik antolatutako ikastaroetako eta Masterreko irakasleei eta hizlariei ordaintzeko. Aurreikusitakoarekin alderatuta zenbatekoa gutxitu da, ekintza pare bat atzeratu direlako, hain zuzen ere, Konkurtso Zuzenbideari buruzko ikastaro bat eta Gizarte Segurantzari buruzko ikastaro bat; zehatz esanda, biak ala biak une honetan martxan daude, 2019ko urtarrilean hasi dira irakasten eta.
- Bigarren, ***Pertsonalaren gastuak*** aipatu behar dira, 185.321 € guztira.

### **SARRERAK:**

- Ia-ia finantzaketa-iturri bakarra denez, garrantziari erreparatuz eta aurrekontutik urruntzen delako, 706 kontua aipatu behar da, ***Jarduerak antolatzearen ondoriozko sarrerak***, 858.983 € guztira. Kopuru hori aurrekontuetan jasotakoa baino txikiagoa da, aurreikusitako jarduera bi atzeratu direlako, gastuen atalean aurreratu dugun moduan.

Eskolaren arrakasta ez da ekonomikoa bakarrik, eta Elkargoak Praktika Juridikoko Eskolari aspalditik emandako laguntza handia erakusten du. Aitorpen hori fruituak ematen ari da, eta horri esker, guztiz ziur gaude apustu honek etorkizunean ere jarraitu behar duela, ez bakarrik ekonomiari dagokionez garrantzia duelako, baita gure jarduera profesionala hobetzen duelako ere, trebakuntza egokia ahalbidetzen digun tresna sortu baitugu.

## **Ofizioko txanda:**

Atal honetan, Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren eginkizunetarako beharrezko azpiegiturari dagozkion gastuak jaso ditugu, baita ofizioko txandari eta atxilotuari

laguntzeko zerbitzuari dagozkionak ere, modalitate guztietan, etxeko indarkeria barne hartuta.

Gastuak aurrekontuan jasotakoak dira, 656.892 €. Azken urteetan egindako lanari esker, une honetan informazioa errazago truka dezakegu doako justizian eta ofizioko txandan lan egiten dugun erakunde guztien artean; horrez gain, estraneten bidez informazio hori ofizioko txandako elkargokideen eskura ere jar dezakegu.

Ezarri dugun sistema segurua dela ziurtatu dugu; gainera, abokatuek esku artean dituzten gaiak kontrolatzeko erraztu da. Ondorioz, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, Elkargoaren eta elkargokideen arteko ia komunikazio guztiak modu telematikoan egiten hasi ginen, ofiziozko txandari eta atxilotuari laguntza emateri dagokienez (baita Etxeko Indarkeriari dagokionez); beraz, Elkargoan entregatzen ziren paperezko parteak desagertu dira.

Atal honetako sarrerak (578.375 €) aurreko urteetako zenbatekoekin bat datoz; defizit txiki bat dago (37.250 €), Ofizioko Txandaren zentro analitikoa dela eta. Dena dela, espero dugu defizit hori ezabatzea, izan ere, 153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoarena, 2019ko urtarrilaren 1ean indarrean ezarri zen eta testu horrek dirulaguntzen sistema berria ezarri du; ondorioz, etorkizunean diru gehiago jasoko dugula uste dugu. Beraz, defizita desagertuko dela espero dugu.

## **Elkargoko batzordeak, azterlan taldeak eta beste gastu gune batzuk:**

Jarraian, memoriarekin batera gehitu dugun taula analitikoaren ordenari jarraituz, beste gastu gune batzuk eta Elkargoko batzordeak azalduko ditugu, garrantzi ekonomikoa edo Elkargorako duten interesa kontuan hartuta azalpen berezia merezi dute eta.

### **Kultura:**

Aurreikusitakoa (19.800 €) eta apur bat gehiago gastatu da (20.639 €); horren isla dira urtean zehar ekitaldiak; Elkargoari bizitasuna ematen diote, guri eta gizarte osoari zabalduko ekitaldiak antolatuz eta, azken finean, Abokatuen Elkargoko eraikina eta gizataldea bera Bizkaiko gizarteari hurbilduz.

Elkargoaren lokaletan hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu dira: musika kontzertuak, zinema zikloak, literatura ekitaldiak eta irakurketa egunak, antzezlanak, Gabonetako ikuskizunak guraso eta haurrentzat, etab. Hori guztia laburpen-memorian

jasota dago, eta Elkargoko web orrian ikus daiteke, Batzordeari dagokion atalean. Era berean, modu aktiboan parte hartzen du gure aldizkariko zenbaki guztietan argitaratzen den kultura-atalean.

### **Hitzaldiak eta Ikastaroak:**

Atal honetan 2018ko apirilaren 26an eta 27an egindako Bizkaiko Abokatuen II. Kongresua sartuta dago. Kongresua arrakastatsua izan zen. 319 lagun bertaratu ziren; gehienak, elkargokideak; 55 hizlari eta 52 hitzaldi izan ziren.

Kongresuaren antolaketak 61.473 € gastatzea ekarri zuen. Dena den sarrerak ere izan ziren (52.430 €): publizitatea, babesak eta laguntzak, eta bertaratu zirenen ekarpenak.

### **Informazio Agerkaria:**

Elkargoko aldizkariaren hamar zenbaki argitaratu dira (266tik 275. zenbakira); guztira, zenbaki bakoitzeko 5.550 ale argitaratzen dira; elkargokidek eta mundu juridikoko beste eragile askok postaz jasotzen dituzte.

Gastatutakoa (155.407 €) eta aurreikusitakoa antzekoak dira, eta zenbatekoak aurreko urtekoekin konparatuz, paretsu. Publizitatetik eratorritakoa, 59.573 €.

### **Argitalpenak:**

Ekitaldi honetan 44.887 € gastatu dira, batetik, liburu interesgarriak erosteko eta elkargokideen artean banatzeko, eta, bestetik, jarraian azalduko ditugun ekimen batzuk aurrera ateratzeko.

Hiru dira ekitaldi honetan banatu diren lanak: “Esquemas procesales”, “Código Penal y Enjuiciamiento Criminal”, “Guía práctica del Reglamento de Protección de Datos Personales”, “La Segunda Oportunidad de las Personas Físicas”, “Estatuto de los Trabajadores y Ley de la Jurisdicción Social” y “Legislación Administrativa”.

Gainera, Vlex argitaletxearen datu baseak eragindako gastua sartuta dago. Elkargoaren estranetaren bidez doan kontsultatu ahal dute abokatuak legeria, doktrina eta formularioak biltzen dituen tresna hori.

### **Ekimen korporatiboak:**

Atal honetan Elkargoak antolatutako zenbait ekimen sartzen dira, esate baterako, urteko bazkaria, Elkargoan 40 urte daramatzaten lankideen omenezko bazkaria, edo Barakaldoko eta Durangoko epai barrutietan egiten diren ospakizunetarako laguntzak.

Laburbilduz, 119.707 € gastatu dira; gehiena, urteko bazkarian: 516 lagun baino gehiago etorri ziren; beraz, jende asko etorri zen. Baina sarrerak ere izan dira, hain zuzen, elkargokideek urteko bazkaria egiteko ipini duten dirua: 18.555 €.

Ekitaldi ekonomikoaren barruan beste ekimen korporatibo bat ere kontuan hartu behar da, izan ere, 2018ko uztailaren 11n ospakizun ekitaldi arrakastatsu bat antolatu zen: Elkargoaren 180. Urteurrena. Ekitaldi hori Iberdrola dorrean ospatu genuen eta jende asko etortzekoa zenez, solairu bat baino, solairu bi (23. eta 24. solairuak) alokatu behar izan genituen, gure hasierako aurreikuspenak erabat gaindituz (702 lagun elkartu ziren).

Aurrekontua prestatu zenean, ez zen urteurrenaren ospakizuna kontuan hartu. Horrenbestez, partida honetan aurreikusitakoa baino defizit handiagoa gauzatu da.

Partidaren barruan daude baita ere, bestelako zerbitzuak izenburuaren azpian, Elkargoak abokatzarekin lotuta dauden zenbait erakunderen aldeko ekarpenak edo Gobernu Batzordeak erabakitakoak.

### **Arbitraje auzitegia:**

Duela urte batzuk, zerbitzu orokorren zentro independente moduan ezarri zen. Beraz, auzitegiaren jardueratik zuzenean eratorritako gastuak eta sarrerak hari egozten zaizkio.

Ekitaldi honetan, beharrezkotzat jo zen 44.400 €-ko aurrekontua ezartzea. Hala ere, gutxiago gastatu da: 44.656 €.

Jarduera honetako ohiko irizpideari jarraituz, arbitrajeak likidazioaren unean kontabilizatzen dira. Horren eraginez, kontzeptu honegatik, 16.142 € soilik kontabilizatu ahal izan ditugu, izapidetzen ari diren gaiak asko diren arren. Sarrera modura ere arbitraje ikastaroengatik irabazitakoa sartu da; ikastaro horiek online eskaintzen dira, abokatuen beste elkargo batzuekin lankidetzan, batez ere Valentziakoarekin; ikastaro horiek arrakasta handia izan dute eta 660 €-ko sarrera ekarri dute. Horrenbestez, auzitegiaren sarrerak 2018an hauek izan dira: 16.802 €.

### **Nazioarteko lankidetzak eta Garapenerako hezkuntza. :**

2018rako zenbatekoa 34.200 €-koa zen, hau da, aurrekontuaren % 1. Banaketa beti bezala egin da, Elkargoko Nazioarteko Lankidetzako Batzordeak ezarritako irizpideen arabera. Eskabide asko egon dira eta azkenean erakunde hauek lagundu ditugu:

1. FUNDACIÓN AYUDA MAS, Ekuador.

Egitasmoa: “Atención integral, legal y psicosocial a personas refugiadas en la frontera Colombo-Ecuatoriana”. 5.000 €

2. PAZ Y SOLIDARIDAD/ BAKEA ETA ELKARTASUNA.

Egitasmoa: “Acompañamiento Jurídico a personas defensoras perseguidas y criminalizadas en la lucha de los DDHH, individuales y colectivos de los pueblos de Guatemala”. 8.100 €

3. MUGARIK GABE

Egitasmoa: “Defensa de las víctimas de la masacre de la cumbre de Alaska”. 8.100 €

#### 4. MUNDU BAKEAN

Egitasmoa: “Promoviendo el derecho a la justicia y a la reparación integral de mujeres víctimas de violencia “Casa Hogar Seguro”. Guatemala. 5.000 €

#### 5. CARITAS

Egitasmoa: “Defensa de los derechos de las mujeres e hijos e hijas y prevención de la violencia familiar”. Perú. 4.000 €

6. KCD, Festival Cine Invisible/ Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia, Euskadi.

Egitasmoa: “Promoción ciudadanía activa en defensa DDHH”. 2.000 €

7. CEAR- Euskadi. Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi/Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin.

Egitasmoa: “La BilbaoRefugio: Corremos por las personas que huyen. Defensa del derecho de asilo y de las personas refugiadas”. 2.000 €

Elkargoko web orrialdean —[www.icasv-bilbao.com](http://www.icasv-bilbao.com)— diruz lagundutako proiektuen berri zehatza ematen da, hain zuzen ere, batzordeei eskainitako atalean.

### **Azterlan taldeak:**

Taulan azterlan taldeen ohiko partidak aurkituko dituzue. Izan ere, Elkargoak talde ohien zenbait gastu ordaintzen ditu. Talde horiek guztiek Elkargoari bizitasuna ematen diote eta elkargokideei aukera ematen die izaera desberdineko hainbat ekimenetan parte hartzeko.

Une honetan taldeak hauek dira (sorrera data kontuan hartuta): Familia zuzenbidea, Euskal zuzenbide zibila, Teknologia berriak, Bitartekaritza, Ingurumena, Kontsumoa, Lan zuzenbidea, Nagusien zuzenbidea, Jabetza intelektualari buruzkoa, Zuzenbide kolaboratiboarena eta Animalien zuzenbidearena.

Taulan sarrera modura agertzen dira jardunaldietako izen emateek eragindako diru sarrerak. Kontuan hartu behar da jardunaldi horietako batzuk azterlan taldeek antolatu dituztela.

Batzordeen eta azterlan taldeen jarduera-txostenak Elkargoaren web orrialdean sartuta daude, hain zuzen ere, batzordeei eskainitako atalean.

Laburbilduz, onartutako aurrekontua bete da. Guztira, 3.507.105 € gastatu dira, hau da, aurreikusitakoa baino % 1,46 gehiago. Esan bezala, zenbateko horretan sartuta dago CNMC erakundeak ezarritako 125.000 €-ko isuna; bestela, aurreikusitako gastura ez genuen heldu behar.

Sarrerak 3.353.880 €-koak izan dira, aurreikusitakoa baino % 2,97 gehiago. Hala ere, 153.225 €-ko saldo negatiboa dugu, gure Elkargoaren Gizarte Funtsetik kendu behar izan duguna.

Datu hauek guztiak une honetan ikuskatzen ari dira; enpresa independente bat egiten ari da lan hori. Ikuskaritza-txostena prest egongo da **Kontuen inguruko Batzar Nagusia** egin baino lehen. Hain zuzen ere, batzar hori **2019ko martxoaren 21ean** egingo dugu, **13.00ean**, gure Elkargoaren ekitaldi-aretoan.

Bilbon, 2019ko martxoaren 5ean.